

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

Osorik argitaratzen da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN «Tolosako Udalean aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia», bat etorrita legeria honekin: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen; 70.2 artikulua. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena; 196.2 artikulua. 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena; 7.2 artikulua.

Araudi horrek hasierako onarpena jaso zuen 2021eko otsailaren 25eko Osoko Bilkuran, eta jendaurrean jarri zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2021eko martxoaren 11n argitaratutako iragarki baten bidez, 30 egunez, eta epe horretan alegazio idazki bat aurkeztu zuten. Alegazioa onartu eta diktamena egin zuten, eta, ondoren, behin betiko testua idatzi zuten, zeina Udaltzarak onartu baitzuen 2021eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran.

Administrazio-bidean behin betikoa den erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Hori guztia bat etorrita urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezarritakoarekin.

Tolosa, 2021eko ekainaren 7a.—Olatz Peon Ormazabal, alkatea. (4043)

Tolosako Udalean aldi baterako lan poltsak kudeatzeko Araudia.

AURREKARIAK

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30koak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 55. artikuluan enplegu publikora iristea eta zerbitzu-harremana eskuratzea arautuko duten printzipio gidariak xedatzen ditu. Hala, funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak hautatzeko, ezartzen du erabili behar direla berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak (EKren 23. artikulua) eta Legeak berak finkatutako beste printzipio batzuk bermatzen dituzten prozedurak, hala nola:

- Deialdien eta haien oinarrien publizitatea.
- Gardentasuna.
- Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.
- Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean.
- Hautaketa-prozesuen edukiaren eta bete beharreko eginkizunen edo lanen arteko egokitasuna.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Anuncio

De conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el artículo 196.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, y el artículo 7.2 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales aprobado por Decreto de 17 de junio de 1955, se publica en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el texto íntegro del «Reglamento que regula la gestión de bolsas de trabajo temporal del Ayuntamiento de Tolosa».

La normativa fue aprobada inicialmente en la sesión plenaria del 25 de febrero de 2021 y sometida a información pública mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del 11 de marzo de 2021, durante el plazo de 30 días, en el que se ha presentado un escrito de alegaciones. Se conformó el dictamen con la alegación aprobada y se ha elaborado el texto definitivo que se ha aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión de 27 de mayo de 2021.

Contra ese acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa en el plazo de dos meses a partir del día siguiente de la publicación de este acuerdo.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123 y 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.

Tolosa, a 7 de junio de 2021.—La alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal. (4043)

Reglamento de gestión de bolsas de trabajo temporal en el Ayuntamiento de Tolosa.

ANTECEDENTES

El artículo 55 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, dispone los principios rectores que han de regir el acceso al empleo público y la adquisición de la relación de servicio. Así, establece que la selección del personal funcionario y laboral debe realizarse mediante procedimientos que garanticen los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad (artículo 23 de la CE) y otra serie de principios consagrados por la propia Ley, como son:

- Publicidad de las convocatorias y de sus bases.
- Transparencia.
- Imparcialidad y profesionalidad de los miembros de los órganos de selección.
- Independencia y discrecionalidad técnica en la actuación de los órganos de selección.
- Adecuación entre el contenido de los procesos selectivos y las funciones o tareas a desarrollar.

f) Arintasuna, hautaketa-prozesuen objektibotasunari kalterik egin gabe.

Bitarteko funtzionarioen hautaketari dagokionez, aipatutako 5/2015 testu bateginaren 10. artikulua adierazten du hautaketa hori prozedura arinen bidez egin beharko dela, betiere berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak errespetatuz.

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 33. artikulua –lege hori aldi baterako indarrean egongo da, harik eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina garatzen duen araudi autonomikoak indargabetzen duen arte–, ezartzen du bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako lan-kontratadun langileen hautaketa publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera zehazten diren prozeduren arabera egingo dela, ahalik eta arinen egin gainera, eta izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: titulazio-baldintza orokorrak eta lanpostuan jarduteko eskatzen diren gainerako baldintzak.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta aintzat hartuta batik bat Tolosako Udalaren tamainako toki-administrazio baten aldi baterako kontratazioaren bolumena eta bitarteko izendapenak, beharrezkoa da aldi baterako kontratazioak kudeatzeko arau argi batzuk ezartzea, zeinek kontratazio horien kudeaketan beharrezkoa den arintasuna izango duten –kalterik egin gabe enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipio horiek errespetatzeari–, eta kontratazio horiek kontrolatzeko eta babesteko beharrezkoak diren gardentasun-maila emango duten.

Horiek horrela, lan-poltsak kudeatzeko honako xedapen hauek ezartzen dira:

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Araudi hau aplikatuko zaie Tolosako Udalean beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketari eta dagozkien prozesuen ondoriozko zerrenden kudeaketari, honako kasu hauen arabera:

– Bitarteko funtzionarioak izendatzea hutsik dauden karre-rako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko, edo titularra edo okupatzailea aldi baterako kanpoan dagoen kasuetan.

– Bitarteko funtzionarioak izendatzea aldi baterako programak gauzatzeko. Izendapenean, ahal denean, zehaztu behar dira programaren amaiera-data eta amaiera hori azaltzen duten inguruabarrak, eta izendapena beharrezko egiten duten beharrak.

– Bitarteko funtzionarioak izendatzea, zereginak metatze-agatik. Izendapenean, ahal denean, zehaztu behar dira aurreikusitako amaiera-data eta amaiera hori azaltzen duten inguruabarrak, eta izendapena beharrezkoa egiten duten beharrak.

– Aldi baterako lan-kontratuko langileen kontratazioak egitea.

– Karrerako funtzionarioak zerbitzu-eginkizunetan izendatzea, lanpostuak aldi baterako hornitzeko modu horren erregulazio juridikoarekin bateragarria den guztian.

2. Araudi honetako xedapenak Tolosako Udalaren udal-sozietateei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta Tolosako Udalaren lan-poltsak erabiltzen badituzte sozietate horietan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hornitzean.

3. Nolanahi ere, erregelamendu honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo indarrean dauden lan-itun eta -akordioek udal langileen barne-sustapena sustatzeari buruz adierazitakoari.

f) Agilidad, sin perjuicio de la objetividad en los procesos de selección.

En lo que se refiere a la selección de personal funcionario interino, el artículo 10 del citado texto refundido 5/2015 señala que aquella habrá de realizarse mediante procedimientos ágiles que respeten, en todo caso, los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

A su vez, el artículo 33 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, transitoriamente vigente hasta su derogación por normativa autonómica que desarrolle el mencionado Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, establece que la selección de personas para el funcionario interino y el personal laboral temporal se llevará a cabo conforme a los procedimientos que se determinen atendiendo a los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad y procurando la máxima agilidad, debiendo las personas aspirantes reunir los requisitos generales de titulación y demás condiciones exigidas para el desempeño del puesto de que se trate.

Teniendo en cuenta lo anterior, y máxime en una Administración Local del tamaño del Ayuntamiento de Tolosa y con su volumen de contratación temporal y nombramientos interinos, resulta necesario el establecimiento de unas reglas claras de gestión de las distintas contrataciones temporales, que conjuguen la necesaria agilidad en la gestión de las mismas, sin menoscabo del respeto a dichos principios reguladores del acceso al empleo público, y otorguen los niveles de transparencia necesarios para su control y salvaguarda.

En virtud de lo anterior, se establecen las siguientes disposiciones para la gestión de las bolsas de trabajo:

Artículo 1. *Ámbito de aplicación.*

1. La presente regulación es de aplicación a la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal que sean necesarios en el Ayuntamiento de Tolosa, y a la gestión de las listas resultantes de los correspondientes procesos, conforme a los siguientes supuestos:

– Nombramiento de personal funcionario interino en aquellos supuestos de provisión de puestos de trabajo reservados a funcionarios de carrera que se encuentren vacantes, o cuyo titular u ocupante se encuentre temporalmente ausente.

– Nombramiento de personal funcionario interino para la ejecución de programas temporales. En el nombramiento deberá determinarse, cuando ello fuese posible, la fecha de finalización prevista del programa y las circunstancias que determinen dicha finalización, así como las necesidades que hacen necesario el nombramiento.

– Nombramiento de personal funcionario interino por acumulación de tareas. En el nombramiento deberá determinarse, cuando ello fuese posible, la fecha de finalización prevista para el nombramiento, y las circunstancias que determinen dicha finalización, así como las necesidades que hacen necesario dicho nombramiento.

– Contrataciones de personal laboral temporal.

– Nombramiento de personal funcionario de carrera en comisión de servicios, en lo que resultare compatible con la regulación jurídica de esta forma de provisión temporal de puestos de trabajo.

2. Las disposiciones de este Reglamento serán de aplicación, igualmente, a las sociedades municipales del Ayuntamiento de Tolosa cuando, en la provisión de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en el seno de los mismos, hagan uso de bolsas de trabajo pertenecientes al Ayuntamiento de Tolosa.

3. En cualquier caso, lo dispuesto en este Reglamento se entenderá sin perjuicio de lo que los pactos y acuerdos laborales vigentes pudieran señalar respecto del fomento de la promoción interna de los empleados municipales.

4. Araudi honetako xedapenak ez zaizkie udaltzainei aplikatu, indarrean dagoen bitartean Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, Udaltzaingoaren oinarritzko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsa bat sortzeko, kalterik egin gabe hitzarmen horretan Tolosako Udaleko udaltzainen lan-poltsa propioei buruz xedatutakoari. Tolosako Udaltzak 2017ko abenduaren 27an onartu zuen hitzarmen hori.

2. artikulua. Jarduteko printzipioak.

Lan-poltsetako langileak hautatzeko, printzipio hauek errespetatuko dira:

- a) Deialdien eta lan-poltsak osatzeko baldintzen publikitatea.
- b) Berdintasuna, enplegu publikora sartzeko betekizun orokorren eta lanpostuaren betekizunen arabera.
- c) Meritua eta gaitasuna.
- d) Gardentasuna prozesuaren kudeaketan.

3. artikulua. Lan-poltsak kudeatzeko eskumena.

Lan-poltsen kudeaketa Udaleko Giza Baliabideetako Sailaren zeregina da, eta, bere kasuan, dagokion udal-sozietatearena; nolahi ere, sail horrek ikuskapen orokorra egin ahal izango die sozietateen jarduketei dagokienez, jarduketa horiek erregelamendu honen aplikazio-eremuan sartzen direnean.

Bestalde, langileen ordezkariak eman beharko zaie sortzen diren zalantza eta arazoak eta haiei buruz hartzen diren ebazpenak berri.

4. artikulua. Lan-poltsak eratzea.

1. Udal honetan hutsik dagoen edozein plazaren deialdiak lan-poltsa bat sortuko du, ariketa baztertzaila guztiak gainditzen dituzten oposiziogileekin, dagokien oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen araberako puntuazio-ordenaren arabera. Plaza jakin baten deialdiak sortutako poltsa bakoitza kategoria, talde, eskala, azpieskala eta mota berean lehendik indarrean dagoenaren gainetik egongo da.

2. Halakorik ezean, Udalaren beste lan-poltsa batzuk erabili ahal izango dira, bete beharreko funtzioetan eta eskatutako titulazio-mailan antzekotasun garbia dagoenean, betiere hautatutako pertsonak, lanpostu horri dagokionez, eskatutako baldintzak betetzen baditu lanpostuen zerrendan.

3. Lan-poltsarik ez badago, lanpostu jakin batzuk behin-behinean betetzeko berariazko poltsa bat sortzeko deialdia egin ahal izango da. Deialdi horiek ahalik eta arinen egin beharko dira, betiere publikitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz.

4. Urgentziatzeko eta behar egiaztatuengatik deialdi hori egiteko arrazoizko denborarik ez dagoenean, honela jardun ahal izango da:

* Lehenik eta behin, beste administrazio publiko batzuek erabiltzeko aukera aurreikusita duten administrazio publikoetako lan-poltsetara joko da, ordena eta irismen honekin:

– Antzeko tamaina eta ezaugarriak dituzten beste udal bazuetakako lan-poltsak.

– IVAPeko lan-poltsak.

– Beste administrazio publiko batzuen lan-poltsak.

* Administrazio hauetan indarrean dauden lan-poltsetan hautagairik ez badago edo aurrez aipatutako lan-poltsa guztiak

4. Las disposiciones de este Reglamento no serán de aplicación a los y las agentes de la Policía Local en tanto en cuanto esté en vigor el convenio de colaboración entre la Academia Vasca de Policía y emergencias y el Ayuntamiento de Tolosa para la creación de una bolsa de trabajo de agentes interinos pertenecientes a la escala básica de Policía Local, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa con fecha 27 de diciembre de 2017, sin perjuicio de lo dispuesto en la presente convenio respecto a las bolsas propias vigentes de agentes de policía local del Ayuntamiento de Tolosa.

Artículo 2. Principios de actuación.

En la selección del personal integrante de las bolsas se respetarán los siguientes principios:

- a) Publicidad de las convocatorias y de los requisitos para integrar las bolsas.
- b) Igualdad, de acuerdo con los requisitos generales de acceso al empleo público y los requisitos del puesto.
- c) Mérito y capacidad.
- d) Transparencia en la gestión del proceso.

Artículo 3. Competencia de la gestión de las bolsas de trabajo.

La gestión de las bolsas de trabajo corresponde al Área de Recursos Humanos del Ayuntamiento y, en su caso, a las sociedades municipales correspondientes, sin perjuicio de la supervisión general por parte del primero respecto de las actuaciones de los segundos, cuando dichas actuaciones se incluyan dentro del ámbito de aplicación de este Reglamento.

No obstante, de las dudas y problemas que se presenten, así como de las resoluciones que al respecto se adopten, deberá darse cuenta a la representación del personal.

Artículo 4. Constitución de las bolsas de trabajo.

1. La convocatoria para la provisión en propiedad de cualquier plaza vacante en este Ayuntamiento generará una bolsa de trabajo con los y las opositoras que aprueben todos los ejercicios eliminatorios, por orden de puntuación según los criterios que establezcan las correspondientes bases reguladoras. Cada bolsa generada por la convocatoria de determinada plaza prevalecerá sobre la anterior vigente en la misma Categoría, Grupo, Escala, Subescala y Clase.

2. En defecto de la anterior, podrán utilizarse otras bolsas de trabajo del Ayuntamiento cuando exista similitud clara en las funciones a desempeñar y en el nivel de titulación requerido, siempre que la persona seleccionada cumpla los requisitos exigidos en la relación de puestos de trabajo con respecto a ese puesto de trabajo.

3. En caso de no disponer de ninguna bolsa de trabajo, se podrá realizar una convocatoria para la creación de una bolsa específica para la cobertura provisional de determinados puestos de trabajo. Dichas convocatorias deberán realizarse con la máxima agilidad, respetando en todo caso los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad.

4. Cuando, por razones de urgencia y necesidad contrastada, no quepa tiempo razonable para desarrollar dicha convocatoria, podrá actuarse de la siguiente manera:

* En primer lugar se acudirá a bolsas de empleo de aquellas administraciones públicas en cuyas convocatorias se hubiera previsto la posibilidad de su uso por parte de otras administraciones públicas, en su caso con el siguiente orden y alcance:

– Bolsas de otros ayuntamientos de similar tamaño y características.

– Bolsas del IVAP.

– Bolsas de otras administraciones públicas.

* En caso de inexistencia de candidatos aptos en Bolsas de Trabajo vigentes de estas administraciones o estar agotadas

agortuta badaude, eta Giza Baliabideetako arduradunak txosten arrazoitua egin ondoren, enplegu-zerbitzu publikoetara joahal izango da azkenik (Lanbide eta SPEE). Kasu horretan, dagokion enplegu-zerbitzu publikoak proposatutako pertsonak, zeinek bete beharko baitituzte lanpostu-zerrendan jasotako lanpostua betetzeko eskatzen diren oinarritzko baldintzak, prozedura sumarioaren ondoren hautatuko dira, bat etorrita aipatutako berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin.

Bide horietako baten bidez izendatutako edo kontratatutako pertsonak lan-poltsan sartuko dira, eta lan-poltsaren azken tokian egongo dira lehen izendapena egitean edo lehen kontratua sinatzean, betiere praktiken ebaluazio-txostena aldekoa bada.

Atal honetan ezarritako hautaketa-moduren batean (Lanbide edo SEPE) lan-poltsa batean sartzeak indarra galduko du antzeko ezaugarriak dituen deialdi bat ebatzen denean edo lan-poltsa berri bat sortzen denean.

5. artikulua. Tolosako Udaleko lan-poltsarako hautagai bat zein egoeratan egon daitekeen.

1. Lanerako prest. Lan-poltsa bateko hautagaien zerrendan dago, aldi baterako zerbitzuak emateko deia zain.

Nolanahi ere, eskaintako izendapena edo kontratua sei hilabeteko tartean bi aldiz jarraian onartzen ez duen hautagaia –«aldi baterako baja» egoera ekar dezaketen kasu justifikatuak alde batera utzi gabe– «lanerako prest» gisa igaroko da dagokion lan-poltsaren azken lekura.

Era berean, berdin jokatuko da Tolosako Udalarekin edo haren edozein udal-sozietaterekin enplegu-harremanean borondatez baja ematen duenarekin ere.

2. Lanean. Araudi honen aplikazio-eremuan ematen ditu zerbitzuak. Egoera horretan dagoen bitartean, langileak honako hauekin lotutako lan-eskaintzak baino ezin izango ditu jaso:

- a) Beste enplegu-poltsa batzuk, okupazio-egoera eragin zuenaz bestelakoak.
- b) Erretiro partzialagatiko plaza bat betetzeko txanda-kontratuak.
- c) Aurrekoarekin berehalako jarraitutasuna duten kontratuak edo izendapenak, erregelamendu honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- d) Kontratuak edo izendapenak, inolako zalantzarik gabe eta beharra sortzen den unetik hasita, gutxienez urtebeteko iraupena izatea, izendapen horretatik zenbatzen hasita.

Dagokion kontratuaren/izendapenaren indarraldia amaituta, jardunean edo «lanean» dauden pertsonak «lanerako prest» egoerara igaroko dira berriro, eta jatorrizko zerrendan hasierako posizioa mantenduko dute, baina gerta daiteke hura indargabetu izana ondoren bat sortzeagatik, erregelamendu honen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Ez-lokalizagarri. Giza Baliabideetako Sailak, ofizioz, egoera horretan alta emango die bizileku- edo telefono-aldaketa ez jakinarazteagatik mezularitza-bidez bidalitako komunikazioei edo, hala badagokio, egiten zaizkien telefono-deiei erantzuten ez dieten lan-poltsa bateko hautagaiak. Egoera horretan ez zaio lan-eskaintzarik egingo hautagaiari.

Helbidearen edo telefonoaren aldaketa ez jakinarazteagatik «ez-lokalizagarri» egoeran alta eman eta egoera horretan 3 hilabete baino gehiago daramaten hautagaiak dagokion lan-poltsaren azken lekura bidaliko dira, eta «ez-lokalizagarri» egoerari e-

todas las bolsas de trabajo anteriormente señaladas, y previo informe motivado del responsable de Recursos Humanos, se podrá acudir, por último, a los servicios públicos de empleo (Lanbide y SPEE). En este caso, las personas propuestas por el servicio público de empleo correspondiente, que deberán cumplir los requisitos básicos exigidos para el desempeño del puesto incluidas en la Relación de Puestos de Trabajo, serán seleccionadas previo procedimiento sumario, congruente con los citados principios de igualdad, mérito y capacidad.

Las personas nombradas o contratadas por alguna de estas vías se integrarán en la bolsa de trabajo ocupando el último lugar de la misma en el momento del primer nombramiento o de la firma del primer contrato, siempre y cuando el informe de evaluación realizado de las prácticas sea favorable.

La integración en una bolsa de trabajo en virtud de alguna de las formas de selección (Lanbide o SEPE) establecidas en el presente apartado perderá su vigencia cuando se resuelva una convocatoria de similares características o se genere una nueva bolsa de trabajo.

Artículo 5. Situaciones en las que puede hallarse un candidato integrante de las bolsas de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa.

1. Disponible. Se encuentra en la lista de candidatos de una bolsa de trabajo, a la espera de ser llamado para una prestación de servicios de carácter temporal.

En todo caso, aquella persona candidata que no acepte, por dos veces consecutivas en el intervalo de seis meses, el nombramiento o contrato ofertado –sin perjuicio de los supuestos justificados que puedan dar lugar a una situación de «baja temporal»– pasará como «disponible» al final de la bolsa de trabajo correspondiente.

Idéntica suerte correrá quien voluntariamente cause baja en su relación de empleo con el Ayuntamiento de Tolosa o con cualquiera de sus sociedades municipales.

2. Trabajando. Presta servicios en el ámbito de aplicación de este Reglamento. Mientras se encuentre en esta situación, el o la trabajadora sólo podrá recibir ofertas de trabajo relacionadas con:

- a) Otras bolsas de empleo, distintas a la que dio origen a su situación de ocupación.
- b) Contratos de relevo para la cobertura de una plaza por jubilación parcial.
- c) Contratos o nombramientos que tengan inmediata continuidad con el preexistente, según lo dispuesto en el artículo 8 del presente reglamento.
- d) Contratos o nombramientos que impliquen, sin ningún tipo de duda y desde el momento en que se produzca su necesidad, una duración estimada de, al menos, un año desde dicho nombramiento.

Finalizada la vigencia del correspondiente contrato/nombramiento las personas en activo o «trabajando» pasarán nuevamente a la situación de «disponible», manteniendo su inicial posición en la lista de origen, sin perjuicio de que ésta haya podido quedar derogada por la creación de una posterior, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 4 de este Reglamento.

3. Illocalizable. El Área de Recursos Humanos procederá, de oficio, a dar de alta en esta situación a aquellos candidatos o candidatas integrantes de una bolsa de trabajo que, por no haber comunicado el cambio de domicilio o teléfono, no contesten a las comunicaciones remitidas por mensajería o a las llamadas telefónicas que en su caso se les realicen. En esta situación no se efectuará oferta de trabajo alguna a la persona candidata.

Aquellos candidatos y candidatas que, por no haber comunicado el cambio de domicilio o teléfono, sean dados de alta en la situación de «ilocalizables», y permanezcan más de 3 meses en dicha situación, serán relegados al final de la bolsa de traba-

tsiko diote, harik eta lokalizatzeko datu berriak jakinarazten dituzten arte. Hala ere, datu horiek jakinarazteak «lanerako prest» egoerara pasatzea baino ez du ekarriko, eta, beraz, ez da berreskuratzeko jatorrizko lehentasun-hurrenkera dagokion lan-poltsaren barruan.

4. Aldi baterako baja. Egoera horretara igaroko da:

– Idatziz egiaztatzen duena lanerako ezintasun iragankorrean edo amatasunagatiko atsedendian dagoela.

– Idatziz egiaztatzen badu izendapen edo kontratu baten titularra dela beste administrazio edo erakunde batean, baldin eta, gutxienez, eskaintzen zaion iraupenaren eta dedikazio-erregimenaren berdina badu.

– Izendapen edo kontratu bat ez onartzeko behar bezala justifikatutako arrazoiak alegatzen baditu. Ondorio horietarako, ez da arrazoi justifikatutzat hartuko, inola ere, kontratazioa edo izendapena aurreikusten den egunetan oporrak edo aisialdiko absentziak aurreikustea, salbu eta hautagaiak agiri bidez egiaztatzen badu enplegu-harremana onartzeak eragin diezaiokeen kalte ekonomikoa.

15 eguneko epean «aldi baterako baja» egoerara igarotzeko arrazoiak egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten ez bada, hautagaiak eskaintza borondatez baztertzen duela ulertuko da, eta araudi honetan kasu horietarako ezarritako erregulazioa aplikatuko da.

Behin «aldi baterako baja» egoerara igarotzea eragin zuen arrazoiak amaituta, interesdunak halaxe jakinarazi beharko dio Giza Baliabideetako Sailari 15 eguneko epean, dagokion justifikazio-dokumentazioa erantsita. Jakinarazpen hori egin arte edo dagokion egiaztagiria aurkeztu arte, hala badagokio, ez zaio lan-eskaintzarik egingo hautagaiari.

5. Behin betiko baja. Egoera horretara igaroko dira honako hauek:

– Borondatez hala eskatzen dutenak.

– Izendapen edo kontratu bat onartzen badute eta hartarako eskatzen diren titulazio akademikoko baldintzak betetzen ez badituzte. Nolanahi ere, behin betiko baja dagokion lan-poltsan bakarrik emango da.

– Modu iraunkorrean ezgaituak izatea, erretiroa hartzeko legezko adina betetzea edo erantzukizun publikoak betetzeko behin betiko desgaituak izatea.

6. artikulua. Aldi baterako zerbitzu-eskaerak.

1. Giza Baliabideetako Sailak luzamendurik gabe izapidetuko ditu, erregelamendu honetako xedapenekin bat etorritz, udal sailek zuzentzen dizkion aldi baterako zerbitzuak emateko eskaera guztiak, baldin eta eskabide horiek bat badatoz unean-unean udal gobernu-organoei Langileak Ordezteko onartu dituzten Irizpide Orokorrekin.

2. Udal sailletako arduradunek aldi baterako zerbitzuak emateko egiten duten eskaera Langileak Ordezteko Irizpide Orokor horietan xedatutakotik kanpo badago, Giza Baliabideetako arduradunak legezketasunari eta egokitasunari buruz egindako xostena beharko da eskaera izapidetzeko.

3. Nolanahi ere, eskaerak, aintzat hartu ahal izateko, xehetasun eta argitasun osoz adierazi beharko dituzte honako alderdi hauek:

- * Bitarteko izendapenaren edo aldi baterako kontratazioaren beharra eragiten duten inguruabarrak.
- * Kontratazioaren izaera arrunta edo premiazkoa.
- * Zerbitzu-harremanaren gutxi gorabeherako denbora eta horrek dakarren lanaldiaren ehunekoa.

jo correspondiente, y mantendrán la situación de «ilocalizable» en tanto en cuanto no comuniquen nuevos datos que posibiliten su localización. No obstante, la comunicación de dichos datos únicamente supondrá su pase a la situación de «disponible», no recuperando con ello el orden de prelación originario dentro la correspondiente bolsa de trabajo.

4. Baja temporal. Pasará a esta situación quien:

– Acredite por escrito encontrarse en situación de Incapacidad Laboral Transitoria o descanso por maternidad/paternidad.

– Acredite por escrito ser titular de un nombramiento o contrato en otra administración o entidad que, al menos, posea una duración estimada y régimen de dedicación igual al que se le ofrece.

